

## Literatura

Juanjo Olasagarre

# «Beste ertz batetik begiratzeko zaio orain gizarteari»

Barrutia, Ermuko Forokoa eta irakaslea; Terese, doktorego ikaslea; eta Tereseren aita, Barrutiaren gazte denboretako lagun izandakoa, orain ospitalean eri handi. Harreman korapilatsuak dira Juanjo Olasagarreren *T* (tragediaren poza) nobelaren erdigunea: politikaz bezainbat bizitzaren zentzuaz hitz egiten duen liburua argitaratu berri du Alberdania argitaletxearen eskutik.

**GORKA BEREZIARTUA**

Argazkiak: Josu Santesteban

**Jogurt grekoa irudituko zait nobela hau: alde batetik arina, bestetik klasikoa. Zer iruditzen konparazioa?**

[Barre egin du] Gustatzen zait: esaten badidazu liburua gauza arina dela, baina pixkanaka gai sakonagoetara jotzen duela... bada, hori zen nire asmoa. Dena dela, nobela oso gertu daukat oraindik eta ez nekien irakurtzeko arina ala pisua ote zen. Badaude

Durangoko Azokan liburu gehiegi publikatzen direla uste du Olasagarrek, baina, era berean, euskal literaturari oso ondo datorkiola horrelako gunea izatea.

deskribapen asko, objektuen gainean asko gelditzen naiz...

**Arin arina ez da izango hurrengo galdera: aldizkari honetako *Ttakun-herrenka* sailean idatzi dituzun gogoeten ildotik, esan dezakegu *T* (tragediaren poza) nobela postmodernoa dela?**

[Barre egin du berrir] Teorikoak ibiltzen dira postmodernitatea definitzen eta



**ARGIA**

Gainera ARGIAren harpidedunek egunero egingo ditugun zozketetan zuzenean hartuko duzue parte.

**Ez galdu aukera!**

Etor zaitez abenduaren **5etik 8ra Durangoko Azokara.**  
Horma oso bat dugu zure iritziarekin betetzeko

**ARGIA**  
ASTEKARIA ETA  
ASKOZ ERE  
**gehiago**



AMABOIA

Iker

ANDER

Ismael

Esti

Iratitz

Marian

Amalery

Itxaso

Egortz

Maider

Sergio

AINARA

Maitz

**ZU**

ERE, HARPIDEDUN BAT  
BAINO ASKOZ ERE

**gehiago**





batzuek diote neoliberalismoaren beste mozorro bat dela; beste batzuek ezetz, badagoela beste zerbait. Joseba Gabilondok adibidez, *Kaliforniatik bibotzetik* (Elkar, 1992) liburuan dio Espainiako Estatua 1992an espektakulu bihurtu zela, merkatuan sartu zela, eta abar. Hori izango litzateke alde negatiboa; positiboa ere badago, eman dezagun, iraultzaren ikuspuntutik: ez zen gizon heterosexual zuria bakarrik askatu behar; askatu behar zen emakume zuria, emakume beltza, gay jendea, lesbianak... Badaude Slavoj Žižek bezalakoak ere, Hegel erabiliz demostratzen dutenak –bide batez niri neuronak kirrinka jarritz– subjektuaren haustura horrek iraultza geldiarazi duela, ez zegoelako argi zein askatu behar zen.

Niri, gay naizen aldetik, postmodernitateak neurri batean gauza on bat ekarri dit: gu ere, bat batean, zerbaiten protagonistak gara, edo behintzat subjektu bihurtu gara. Ez dakit gehiegi esatea den, baina uste dut gizarteari lehen begiratzen ez zitzaion ertz batetik begiratzen zaiola orain.

**Subjektu historikoaren inguruko eztabaida nobelan ere azaltzen da, Terese eta Barrutiaren arteko elkarrizketan. Barrutiaren ustez gizonak bakarrik izan behar du subjektu; Teresek “fatxa” bat dela esaten dio.**

Barrutia Ermuko Forokoa da, eta gehiegikeriaz josita dago, erotuta dagoela ez esateko –hori sinpleegia izango litzateke–. Subjektu historikoaren eztabaida honetaz zer esaten dute Savaterrek eta Ermuko Forokoek? Esaten dute demokraziaren subjektu historikoa dela gizon heterosexual espainiarra; eta, nahi baduzu, espainiar izateko modu bakarrekoa. Barrutiak nobelaren bukaeran Ermuko Foroa utziko duela esaten du, hain zuzen ere, bere eromenean uste duelako ikasi duela bizitza nola gidatu, patua *techné*-aren bidez hesitzen. Eta hori jainkoek bakarrik egin dezakete; Zeusek egiten zuen hori: ez zeukan ezusterik, ezustea bezatu zezakeen.

**Barrutia eta Tereseren arteko harremanaren inguruan egituratu duzu nobela osoa: Teresek nazka, kitzikapena eta sedukzioa biziko ditu istorioak aurrera joan ahala.**

Nobelaren lehenbiziko planteamendua modu tragikoan bukatzen zen, baina irudituzitzaidan ezetz, gehiegizkoa zela; tragikoen, errazegia. Barrutiak uste du patuarekin bezala egin dezakeela Tereserekin: *techné*-aren bidez, hau da lanaren bidez, berak nahi duen modura erabil dezakeela. Barrutiak iraganean duen bekaketa zuritu nahi du Tereseren bidez. Iruditzen zitzaidan justifikatu egin behar zela Terese Barrutiarengana hurbiltzea. Saiatu naiz harreman hori lantzen: nire zalantzak nituen irakurleak sinistuko ote zuen, horregatik jolastu egin dut bi pertsonaiekin.

**Harremana alegorikoki irakurri al daiteke? Hau da, nobelan irakasle espainolista erakargarria da abertzaletasuna baztertu duen familiako neskarentzat. Iruditzen zait ematen duela istoriokoa baino irakurketa orokorragoetarako.**

Bai, irakurketa gehiago egin daitezke, noski. Zuk egin duzu, eta hor egongo da.

**Baina asmorik bazeneukan?**

Inplizituki egongo zen nobelaren lehendabiziko planteamenduan, baina ez dut hori lantzen denborarik inbertitu. Denbora gehiago erabili dut Barrutiaren masokismoa lantzen, adibidez. Baina, noski, hortik aurrera testuaren %50 gutxienez irakurleak egiten du.

Tersek joko luke, debekatu zaion neurrian, abertzaletasunaren bila, eta hor dauka Ibon mutil-laguna. Berarengandik ihes egiteko, beste zerbaiten bila dabil. Barrutiarengan bilatzen du norbait muturrak, ertzak mugitu-

ko dizkiona; esperientzia irakatsiko dion pertsona bat. Bazterretan dauden esperientzien pertzepzio handiagoa nahi du.

**Muturreko pertsonaiak dira nobelakoak: Barrutia, esan dugu, Ermuko Forokoa da. Ibonek berriz, ezker abertzalearen ortodoxia errepresentatzen du. Terese berriz, ez bateko, ez besteko.**

Ibonen pertsonaia gehiago landu behar nuela esaten zidaten nobela argitaratu aurretik irakurri zuten lagunek. Ez nuen istorioan sartu ezker abertzalekoa zelako: Tereseren aldaketa islatzea interesatzen zitzaidan, bere zalantzak, nahiz eta onartzen dudan Ibonekin duen harremanaz ez direla agertzen pintzelkada batzuk baino. Aldaketa markatzeko dago Ibon, nahiz eta zuk esaten didazuna ere bada goen: egia da, Terese erdian egon daiteke. Gertatzen dena da, Terese bukaeran, azkenean eszenan bihurtzen dela subjektu, Barrutiak agintzen duena egiten ez duenean. Eszena hori iritsi arte Barrutiaren eskuetan dagoela iruditzen zait.

Bere aitak ezkututzen duen sekretua argitu nahi du Teresek. Genero ugari nahastu dituzu nobelan; ezkutuko gertaera horren kasuan, polizi eleberriaren ukitua sumatu dut.

Tragediaren gaia hain potoloa zen, banekie-la zuzenean horretaz hitz egiten hasita irakurlea atzeraka botako zuela. Interesatzen zitzaidan irakurlea barruan mantentzea, sinesgarritasunaren mugetan; eta, neurri batean horretarako, misterioa zamatu nuen; horrek nobelaren esanahia ere markatzen du, bide batez. Ez dut uste misterio nobela denik, baina Terese neurri batean jakin-minak bultzatzen du, eta berarekin irakurleak ere jakin nahi du.

**Saiakeratik ere badu nobelak.**

Pasarte horiek nobelaren barruan zeuden, eta akzioa eten egiten zuten. Lagun batek iradoki zidan Barrutiaren apunte modura aurkezteko, horrela irakurleak horien gainetik jauzi egin dezake, nahi badu.

**Joseba Gabilondo aipatu duzu lehen. Haren Nazioaren hondarrak liburuan esaten da, euskal literaturak herria errepresentatu nahi badu, herritarren libidoetatik pasa beharko duela. 7-k libidoa isurtzen du alde guztietatik.** [Barre egin du] Gabilondo pixka bat ezagutzen dut, eta ez dakit gustatuko ote zaion nazioaren markoan kokatzea. Esan nahi dut: euskal gatazka agertzen da nobelan, eta ez dakit gustatuko zaion. Libidoa, jakina,

<b>ERANTZI</b> <b>KATAMALO</b> Erantzi	<b>JIMMY BIDAURRETA</b> Cosmonaut camel	<b>BELCEBLUES</b> Infer	<b>Galdutako zubixak</b> Kamen Lertxundi <b>KEMEN LERTXUNDI</b> Galdutako zubixak
<b>KEU AGIRRETXEA</b> Une akustikoa	<b>ESNE BELTZA</b> Made in Euskal Herria	<b>JUAN DE DIEGO</b> Panza de burro	<b>KRISTIAN BRINK QUARTET</b>

**gaztelupeko HOTSAK**  
 Errekal 21  
 48950 BERRIOZAR  
 TEL. +34 941 708114  
 FAX. +34 941 708111  
 www.hotsak.com

**errabal**  
 www.errabaljazz.com

**WWW.HOTSAK.COM**



asko dago. Libido frustratu edo eten batetik sor daiteke Barrutiaren pertsonaia eta Terese dominatzeko bere nahia, baita haren aitarekin berriz harremanetan jartzeko eta amarekin izan ez zuen amodiora bueltatzeko ere. Libidoarekin jolastu egiten da, eszena sexualak daude...

Terese kinka horretan jarri nahi izan dut: bere aurreko belaunaldiak euskal gatazka, nazioa eta abar bizi dituzte; bai Barrutiak, baita gurasoek ere. Terese bera zurrumbilo horretan sartzen da, baina bukaeran askatu egiten da. Azkeneko eszenan bere libidorekin jabe egiten da.

**Argitaletxeen libidoaz ere hitz egin nahiko nuke zurekin, kontuan izanda elkarrizketa hau Durangoko Azokan banatuko den zenbakian aterako dela... liburuaz zer moduz mugituko dela uste duzu?**

Momentuz ez daukat ideiarik salmentak nola doazen, eta ez dakit nola joango den. Gainera, nahiago izaten dut Durangotik aparte argitaratzea. Kontua da, iaz berandutu egin nintzela eta orain atera da.

**Durangotik kanpo hobe, beraz?**

Bueno, nik uste dut liburu gehiegi argitaratzen direla denbora gutxian, eta pasatzen

dira bata bestearen gainean; orduan, irakurlea ez da enteratzen... Horregatik da, ez beste ezerengatik. Nik uste dut euskal literaturari Durango oso ondo heldu zaiola; gertatzen dena da, idazlearen ikuspuntutik, beharbada hobea dela martxoan argitaratzea, edo apirilean. Zergatik? Espazio gehiago duzulako zuretzako; ze Durango da... zurrumbiloa.

**Zurrumbilo horretan utzi duzu T. Bakarrik ibiltzen ikasi du.**

Bukatu dut eta ez dakit kaka zaharra egin dudana ala fundamentuzko zerbait; benetan esaten dizut, zaila da ohartzen. Orain ari naiz konturatzen aurreko liburua, *Ezinezko maletak* (Susa, 2004), gauza txukuna dela, ez dagoela gaizki... baina orain, hiruzpalau urte pasa ondoren.

**Hasieratik harrera ona izan zuelakoan nengoen...**

Bai, baina inoiz ez dakizu zergatik aipatzen den: jendeari min eman diolako, ez zaiolako gustatu, probokatu duzulako... Niri probokatea gustatzen zait, baina gutxieneko kalitate eta fundamentu batekin. Horregatik, orain ikusten ari naiz *Ezinezko maletak* zerbait itxurosoa dela. ■